


TAXIAK: 180 IBILBIDE EGIN DITUGU 18 HIRITAN, ETA ZERBITZUAK ETA TARIFAK ALDERATU DITUGU

BATEZ BESTE, % 5,2 IGO DA TAXI-BIDAIEN PREZIOA, ETA URTEKO KPI, BERRIZ, % 1,4 BAINO EZ. ZERBITZUAREN KALITATEA, ORO HAR, HOBETU EGIN DA, BAINA HAMAR TAXITATIK LAUTAN EZ DA AGERIAN EGON PREZIOEN ZERRENDA, NAHIZ ETA DERRIGORREZKOA DEN

Taxien tarifak ia KPI halako lau igo dira azken urtean



G

arraioberik erosoena taxia da eta, zenbaitetan, derri-
gor erabili beharrekoa ere bai, besterik ezean. Sekula
ez da merkea izan, baina orain inoiz baino garestiagoa
da. Gora eta gora doaz tarifak, eta azken urtean, adibi-
dez, % 5,2 garestitu dira, batez beste, urteko KPI (%
1,4) halako lau ia. Taxien tarifak asko aldatzen dira hi-
ri batetik bestera: Bilbon eta Donostian, adibidez, 0,65
balio du kilometro bakoitzak (lanegunetan eta egu-
nez), eta Madrilen, Alacanten eta Valentzian, ia euroa
ordaindu behar da (% 45 garestiagoa da, beraz). Eta
zergatik agertzen dira halako aldeak, bada? Udal ba-
koitzak bere tarifak jartzen dituelako. Abiasariak eta
gutxieneko ibilaldiak ez dute berdin balio leku guztietan
(Gasteizen, adibidez, 3,64 euro kobratzen dute
abiasaria, eta gutxieneko ibilaldia, berriz, 4,65
Donostian, beste inon baino gehiago); horrez gain, to-
ki bakoitzean gehigarri bereziak eransten dizkiote gut-
xieneko ibilaldiari (ekipajea sartzeagatik, animaliak
eramateagatik, gauez edo asteburuetan ibiltzeagatik,
geltoki eta aireportuetara joateagatik...). Honako hau
ez da CONSUMER EROSKI-k taxien inguruan egiten
duen lehen azterketa; 2005. urtean ere egin zuen ant-
zeko bat, eta ordukoarekin alderatuta, hobetu egin da
taxilarien profesionaltasuna eta ibilgailuen erosotasu-
na. Informazioaren atala, aldiz, orduan bezain eskas
dagoela egiaztatu ahal izan dugu, batik bat taxien tari-
fei dagokien alderdia: hamar ibilgailutatik ia lautan tari-
fak ez dira egon agerian, nahiz eta legeak hala
jartzeko agintzen duen.

18 hiritan aztertu dugu taxi zerbitzua nolakoa den, eta
ondorio horiek atera ditugu beste batzuen artean.
Honako hiri hauetan ibili gara taxia hartuta: A Coruña,
Alacant, Bartzelona, Bilbo, Donostia, Gasteiz,
Granada, Iruñea, Logroño, Madril, Malaga, Murtzia,
Oviedo, Santander, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta
Zaragoza. CONSUMER EROSKI-ko teknikariek hamar
ibilbide egin dituzte hiri bakoitzean, horietako bat
gauez, eta aldiro taxi batean joan dira eta beste batean
etorri. Proba hori bi egunetan egin dute, behin lanegun-
ean eta beste behin jaiegunean. Orotara, 180 ibilbide
egin dituzte taxien, hiri bakoitzean bost, eta bostak ere
oso antzekoak izan dira: hiri erditik ospitale batera,
erdiguneko hotel batetik aireportura, erdiguneko taxi gel-
toki batetik tren edo autobus geltoki batera, eta saltoki
handi batera (beti joan eta etorri). Azterketa hori osat-
zeko, taxi zerbitzuarekin zerikusia duen informazioa
eskatu diegu 18 udalei (zenbat lizentzia dauzkaten,
zenbat taxi dauden egokituta erabiltzaile ezinduentzat,
zer diru laguntza ematen dituzten...). Udal gehienek
helarazi digute informazioa, baina ez Granada,
Oviedo, Madril eta Santanderkoek, nahiz eta guk behin
eta berriz eskatu.

Alderdi guztiak aztertu ondoren, azken emaitza 'onar-
garria' baina ez da, eta atal bakarrean soilik lortu dute
taxiaren emaitza 'ona': kalitate eta garbitasunaren atale-
an. Taxi zerbitzuak hiriz hiri zer emaitza atera duen
aztertuta, honako sailkapen hau egingo genuke: A >



TAXIEN TARIFAK: ALDE HANDIAK DAUDE

	1. TARIFA (Egunez, lanegunetan) ¹				2. TARIFA (Gau, asteburu eta jaiegunetan) ²				GEHIGARRI NAGUSIAK				Prezio aldaketak (2008/09)
	Abiasaria	Gutxieneko ibilaldia	Kilometro bakoitza	Zain emandako ordua	Abiasaria	Gutxieneko ibilaldia	Kilometro bakoitza	Zain emandako ordua	Ekipajea	Aireportua	Animaliak	Garraio geltokiak	
A Coruña	1,34	3,58	0,88	18,48	1,63	3,97	1,05	22,42	0,72	3,52	0,72	-	+% 8,8
Alacant	1,63	3,55	0,95	17,90	1,63	4,75	1,10	21,05	-	-	-	-	+% 5,0
Bartzelona³	2,00	Ez dago	0,86	18,60	2,00	Ez dago	1,10	18,80	1,00	3,1	-	2,10	+% 6,2
Bilbo	Ez dago	3,61	0,65	15,71	Ez dago	4,38	0,89	22,38	-	-	1,00	-	+% 6,0
Donostia	Ez dago	4,65	0,65	18,90	Ez dago	5,40	1,01	25,20	-	-	-	-	+% 6,4
Gasteiz	3,64	Ez dago	0,75	19,83	4,56	Ez dago	1,11	22,99	-	-	-	-	+% 6,0
Granada	1,38	3,64	0,76	19,11	1,73	4,54	0,94	23,90	0,44	-	-	0,44	+% 4,9
Iruñea	1,94	Ez dago	0,73	16,42	2,80	Ez dago	0,97	21,11	-	2,21	-	0,52	+% 3,0
Logroño	1,47	2,68	0,71	16,71	2,20	4,01	1,06	25,07	0,46	(T. finkoa)	-	-	+% 4,2
Madril⁴	2,05	Ez dago	0,98	18,10	2,20	Ez dago	1,15	18,35	-	5,5	-	2,95	+% 6,1
Malaga³	1,42	3,48	0,84	18,47	1,77	4,35	1,03	23,09	0,45	5,5 (6)	-	-	+% 5,0
Murtzia⁵	1,70	3,20	0,85	16,80	2,55	4,80	1,25	25,20	0,35	3,10	0,85	0,85	-
Oviedo³	1,52	3,58	0,83	20,35	1,90	4,47	1,03	25,13	-	-	-	-	+% 7,7
Santander	1,22	3,30	0,82	16,30	1,58	4,20	1,07	21,30	-	-	-	-	+% 5,3
Sevilla³	1,19	3,24	0,83	18,01	1,45	4,06	1,01	22,54	0,44	(T.finkoa)	-	1,26	+% 4,9
Valentzia³	1,40	3,80	0,90	16,93	1,90	6,00	1,04	19,35	-	4	-	-	+% 4,5
Valladolid	1,45	2,65	0,80	17,80	2,20	3,85	1,15	26,50	0,40	(T.finkoa)	-	-	+% 4,9
Zaragoza	1,52	2,47	0,69	19,69	2,29	3,29	1,03	29,53	0,69	4,95	0,69	1,58	+% 5,3

(1) **1. tarifa edo eguneko:** Lanegunetan ematen den zerbitzua, 06:00etan edo 07:00etan hasi eta 22:00ak edo 23:00ak arte. (2) **2. tarifa edo gaueko:** Lanegunetan, larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan ematen den zerbitzua, gaueko ordutegian (gehienetan, 22:00etan edo 23:00etan hasi eta 06:00ak edo 07:00ak arte). Hiri bakoitzak, gainera, baditu egun berezi batzuk non 2. tarifa ezartzen duten (hiri-ko jaietan edo azoka egunetan, adibidez). (3) **Bartzelonan eta Sevillan,** taxiak 2 euroko gehigarria kobratzen dute asteburuetan eta jaiegunetan (Oviedon 1,3koa da gehigarri hori); Malagan ere bada 2 euroko gehigarri hori, baina astegun guztietan kobratzen dute, gauez egin beharreko bidaiengatik. (4) **Madrilen,** 3,10 euro kobratzen dute abiasaria larunbat eta jaiegunetan, 22:00etatik 06:00etara. (5) **Murtzian tarifa hauek dituzte igande eta jaiegunetan:** 4,15 euro gutxieneko ibilaldia, 2,2 euro abiasaria eta 1,1 euro kilometro bakoitza. (6) **Malaga:** Gutxieneko zerbitzua, aireportutik abiatuta: 15,21 euro egunez eta 19,01 euro gauez. Sevillan: aireporturako bidaien tarifa finkoa: 20,7 euro egunez eta 23,08 euro gauez. Valladoliden 20 euro lanegunetan eta 22 jaiegun eta gauean. Logroñon 20 euro astelehentik ostiralera eta 23 igande, jaiegun eta larunbatetan arratsaldeko 15:00etatik aurrera.

Aireportura, mesedez

Garraio publiko gutxi daudelako, edo guztietan erosoena taxia delako, bategatik izan edo besteagatik, hiri erdigunetik aireportuetarako bidaiarik gehienak taxian egiten dituzte herritarrek. Prezioa asko aldatzen da hiri batetik bestera, aireportu batzuk hiritik gertuago edo urrunago egon ohi direlako. Oviedon, adibidez, hurbilen dagoen aireportua 50 kilometrora dago, eta Bilbon, 20 kilometrora baino ez.

Bidaiarik garestienak: Oviedon (52,6 euro, batez beste) eta Murtzian (53 euro, batez beste) aurkitu ditugu. Duela lau urte egin genuen azterketarekin alderatuta, 12 eta 8 euro garestitu da bidaia hori Oviedo eta Murtzian, hurrenez hurren.

Merkeenak: Iruñean (9,22 euro, batez beste), Valentzian (13,50 euro, batez beste) eta Alacanten dituzte (14,7 euro, batez beste). 2005. urtean, hiribururik merkeenetako prezioak 9 eta 12 euro artean zebiltzan (orduan ere, Iruñea eta Alacant ziren merkeenetakoak).

Non aurkitu dugu alderik handiena ibilbide bera egiteagatik: Alacanten % 41eko aldea izan dugu joaneko bidaiaren eta itzulikoaren artean (taxi banatan egin dugu bakoitza). Gainerako hirietan, bi euro ingurukoa izan da aldea.

Tarifa finkoa: hiri erdigunetik aireportura joateagatik, tarifa finkoa kobratzen dute zenbait hiritan, aurrez ezarria. Valladoliden 20 eurokoa da lanegunetan eta 22 eurokoa gau eta jaiegunetan; Logroñon, 20 euroko astelehenerik osatualera, eta 23 eurokoa igande, jaiegun eta larunbatetan; eta Sevillan, 20,70 eurokoa egunean zehar eta 23,08koa gau eta jaiegunetan. Malagan, berriz, hiritik aireporturako bidaiarentzat badute prezio ofiziala (20 eurokoa), baina ez itzuliko bidaiarako. Oviedon ez dute tarifa finko ofizialik, baina ia denek berdintsu kobratzen dute: 55 euro inguru.



Coruñan, Alacanten, Bartzelonan, Granadan, Iruñean, Madrilan, Malagan, Oviedon, Sevillan, Valentzian eta Zaragozan, emaitza 'ona' lortu dute, eta gainerakoetan (Bilbo, Donostia, Gasteiz, Logroño, Murtzia, Santander eta Valladolid), 'onargarria'.

IZUGARRIZKO ALDEAK DAUDE PREZIOAN HIRITIK HIRIRA

Tarifak, batez beste, % 5,2 igo dira guk aztertu ditugun 18 hirietan (KPI halako lau ia), baina tarifak ezartzen dituzten udal guztiek ez dituzte berdin igo. Igoerarik handiena A Coruñan (% 8,8) eta Oviedon (% 7,7) izan da, eta Donostian, Madrilan, Bilbon, Bartzelonan eta Gasteizen ere dezente igo dituzte (% 6 inguru). Igoerarik apalena, berriz, Iruñeko (% 3), Logroño (% 4,2) eta Valentziako (% 4,5) tarifek izan dute. Murtzia, berriz, salbuespena izan da, eta tarifak ez dira igo. Taxian egindako kilometro bakoitza, batez beste, 0,8 euro kostatzen da (lanegunetan eta egunez), baina Madrilan, Alacanten eta Valentzian ia euroa bali du; beste muturrean Bilbo eta Donostia daude, non 0,65 euro ordaindu behar baita kilometroa. Gaueko tarifa, abiasaria, gutxieneko ibilaldia eta gehigarriak aldatu egiten dira hiritik hirira.

Bartzelonan, adibidez, 12 orduz ezartzen dute gaueko tarifa (20:00etatik 08:00etara), baina hiririk gehienetan zortzi edo bederatzir ordurako izaten da (Iruñean zazpi ordurako da, 23:00etatik 06:00etara). Taxia gauez hartzea, batez beste, egunez hartzea baino % 30 garestiago da, baina Logroñon, Murtzian eta Valladoliden % 50 garestiago irtetzen da. Abiasaria, berriz (taxia erabiltzeagatik ordaindu behar izaten den gutxieneko kopurua), 3,64 eurokoa da Gasteizen, beste inon baino gehiago; Madrilan, Bartzelonan eta Iruñean 2 euro ingurukoa da, eta Sevillan 1,19 eurokoa. Bilbon eta Donostian ez dute erabiltzen tarifa mota hori, baina, ordainetan, gutxieneko ibilaldi bat ordain dezala eskatzen diote erabiltzaileari. Hiri guztietan ordaindu behar izaten da gutxieneko hori, salbu eta Gasteizen, Iruñean, Madrilan eta Bartzelonan. Gutxieneko ibilaldirik garestiena Donostiak dauka: 4,65 euro baino gutxiagorekin ez dago inora joaterik (lanegunetako tarifa da hori, egunean zehar ordaindu behar dena); merkeena, berriz, Zaragozan daukate: ia 2,5 euro balio du gutxieneko ibilaldiak. Azkenik, zain emandako denbora ere kontaktu behar da (autoa geldirik dagoen aldia hartzen du, bai bidaiariaren zain dagoelako edo bai zirkulazioa gelditu delako). Taxia zain edo geldi dagoen ordu bakoitza 20,35 euro kostatzen da Oviedon (egunean zehar), han da garestiena, eta 15,71 euro Bilbon; gaueko ordutegian, berriz, Zaragozan 29,53 euro balio du orduak, eta Madrilan, 18,35 euro.

Horrez gain, kontuan hartu behar da hiri guztietan kobratzen dituztela **gehiarriak** (Gasteiz, Donostia, Santander, Oviedo eta Alacanten ezik): ekipajea eramateagatik, adibidez, erdietan ordaindu beharra dago

(euro bat Bartzelonan eta 35 zentimo Murtzian); ibilbidean garraio-geltokiren batera joan behar badu taxiak, gehigarri bat eransten dute zazpi hiritan, eta beste zortzi hiritan gauza bera egiten dute portura edo aireportura joateagatik. Era askotako gehigarriak aurki daitezke, eta batzuk bitxi samarrak ere badira: Iruñean, adibidez, taxiari telefonoz deitzen badiogu, 0,93 euro gehiago ordaindu beharko dugu lanegunetan, eta 1,54 euro jaiegunetan. Beste hiri batzuetan, erakustazoketara joateagatik ezartzen dituzte gehigarriak (Madrilen, Bartzelonan eta Zaragozan), eta egutegiaren arabera ere badira: hiriko jaietan, Aste Santuan edo azoka egunetan ibiltzea garestiago irtetzen da zenbait hiritan (Malagan, Sevillan, Valladoliden edo Zaragozan).

KALITATEA: ONA, BAINA EZ GABEZIARIK GABEA

Kalitatearen atalak lortu du azterketako emaitzarik onena ('ona'). Gure teknikariek honako proba hau egin dute: kale ertzean jarri eta taxi bat gelditzeko saioa egin dute (geltokitik 50-100 metrora jarri dira, eta bost minutuz ahalegindu dira taxiren bat geldiarazten). Saioa ongi atera zaie % 28tan, baina gehien-gehienetan, taxi geltokiraino joan behar izan dute (% 57tan), eta beste zenbaitetan, telefonoz deitu behar izan dute (% 15etan).

Aztertu ditugun 18 hirietan, gune berezi batzuei erreparatu diegu guk (ospitaleak, geltokiak, hotelak...), eta horietan guztietan ia beti egon izan da taxiren bat geltokian, nahiz eta batzuetan falta izan diren. Zerbitzua telefonoz eskatu dugunean, lehen deian erantzun digute gehienek (% 85), eta tratu egoki eta atsegina eman digute. Taxiak, batez beste, sei minutu behar izan dituzte deitu eta bila etortzeko.

BIDERIK MOTZENA

Gabezien artean bat nabarmentzekotan, honako hau egingo genuke: 180 ibilbideetatik % 30ean, nora joan nahi dugun esan aurretik abiarazi du taxilariak taxi metroa (duela lau urteko azterketan ere hori izan zen hutsegiterik deigarriena). Kasu bakan batzuetan (ez dira iritsi % 2ra ere), taximetroak ez du funtzionatu edo ez da egon jarria bidaiariak prezioa ikusteko moduan; 2 ibilbidetan, sistema hori gabe ikusi ditugu taxiak.

Taxia hartzen duenak beldur bat izaten du askotan, batik batik hiri ezezagunean badabil: taxilariak biderik motzena hartuko ote duen edo ez. Guk egindako proban, prezio aldeak izan dira joaneko bidaiaren eta itzulikoaren artean (bidaien % 12tan gertatu da hori), eta ez nolana hikoak, gainera: bederatzir joan-etorritan, % 25-30eko aldea izan da, eta beste bitan, % 50ekoa. Alde hori, hala ere, zirkulazio gorabeherak eragin dute, eta ez beste ezerk. Donostian eta Gasteizen soilik ibili dira taxilariak bidea luzatu nahian eta alferreko itzulingeruak eginez.

TAXIAREN LEGEA: eskubideak eta betebeharrak

Informazioa argi eta agerian: Lizentzia zenbakiak, tarifak eta taximetroak (argizatua eta manipulatu gabe) bidaiariak ikusteko moduan egon behar dute beti.

Zerbitzu profesionala: Taxilariak ez du taximetroa abiaraziko bidaiariak nora joan nahi duen adierazten ez dion arte. Ibilbiderik motzena hartu beharko du, eta ordainagiri ofiziala eman beharko dio bidaiariari. Ezin izango dio uko egin ibilbide bat egiteari, nahiz eta oso motza izan; taxian baimendutakoek baino lagun gehiagok sartu nahi badute, orduan egin diezaiokete uko, edo Polizia jarraika duten pertsonak badira, edo kalteak egingo dituztela iruditzen bazaio (halakoetan, polizia edo udaltzain baten aurrean jakinarazi behar du zergatik egiten dion uko).

Ibilgailuaren ezaugarriak: TAXI jartzen duen kartela eraman behar du, eta SP dioten plaka arauzkoa, kanpoaldean modulu argitua, taximetro homologatua, su-itxalgailua, aire girogailua edo klimatizagailua, eta berogailua.

Erabiltzailearen eskubideak: Leihoak ireki eta itxi ditzake, aire girotua pizteko edo itzaltzeko eska dezake, eta irratia apaltzeko edo itzaltzeko ere bai. Gidariari eskatu behar dio leku seguruan geratu behar duela hura jaisteko, eta egoki gidatu behar duela.

Bidaiariaren betebeharrak: Ez du ibilgailua edo gidaria arriskuan jarri behar. Zerbitzuak balio duena ordaindu behar du, eta ez dio eskatu behar gidariari segurua ez diren tokietan gelditu eta jaitsi nahi duela.

HIRI BAKOITZEKO TAXIEN PROBA PRAKTIKOAREN EMAITZA (CONSUMER EROSKI-REN ARABERA)

HIRIA	Zerbitzuaren kalitatea ¹	Informazioa ²	Garbitasuna eta erosotasuna ³	BATEZ BESTEKOA
A Coruña	Oso ona	Ona	Ona	Ona
Alacant	Ona	Ona	Ona	Ona
Bartzelona	Oso ona	Oso ona	Onargarria	Ona
Bilbo	Ona	Hala-holakoa	Ona	Onargarria
Granada	Onargarria	Ona	Ona	Ona
Logroño	Onargarria	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria
Madril	Ona	Oso ona	Ona	Ona
Malaga	Ona	Oso ona	Onargarria	Ona
Murtzia	Ona	Hala-holakoa	Onargarria	Onargarria
Oviedo	Onargarria	Oso ona	Oso ona	Ona
Iruñea	Ona	Onargarria	Oso ona	Ona
Donostia	Ona	Hala-holakoa	Ona	Onargarria
Santander	Onargarria	Hala-holakoa	Ona	Onargarria
Sevilla	Oso ona	Onargarria	Ona	Ona
Valentzia	Oso ona	Ona	Ona	Ona
Valladolid	Onargarria	Ona	Onargarria	Onargarria
Gasteiz	Onargarria	Hala-holakoa	Ona	Onargarria
Zaragoza	Onargarria	Ona	Ona	Ona
BATEZ BESTEKOA	Ona	Onargarria	Ona	Onargarria

(1) **Zerbitzuaren kalitatea:** Aldizkariko teknikariek hiru era erabili dituzte taxia hartzeko: kalean, geltoki batean edo telefonoz deituta. Kalean hartu dutenean, egiaztatu dute taxia leku seguruan geratu ote den. Geltokian hartu dutenean, geltokia bera nola egon den aztertu dute (beste taxirik egon den, bestelako ibilgailuren batek traba egin duen, eremua ongi argitua egon den, erraz aurkitu ahal izaten duten, eta abar). Eta telefono bidez eskatu badute taxia, telefono zerbitzua zer moduzko izan den aztertu dute teknikariek (zenbat aldez deitu behar izan duen, telefonistak zer arreta eskaini dien, zenbat denbora behar izan duen taxiak bila etortzeko, eta abar). Hiru sistemetan, arreta bereziz zaindu dute taximetroak zer jarri izan duen. Horrez gain, gidariak zer arreta eskaini dien ere aztertu dute, eta itxura zenbateraino zaindu duen ere bai. (2) **Informazioa:** Lehenik eta behin, kontuan hartu dugu ea tarifak agerian jarrita egon diren auto barruan, taxiak eduki ote dituen derrigorrez eraman beharreko ikur adierazgarriak autoa identifikatu ahal izateko, eta taximetroa egoera onean egon izan den eta bezeroari informazio guztia eman izan dion (gehiarriek eta tarifa motak). (3) **Garbitasuna eta erosotasuna:** Autoa nola zainduta eta garbituta egon den aztertu dugu, eta ea beharrezko sistema guztiak eduki dituen erabiltzailea eroso joan dadin (klimatizagailua, musika/irratia, eta abar).

TAXILARI ATSEGINAK, BAINA MANIOBRA ARRISKUTSUAK

Guri egokitu zaizkigun taxilari gehienek profesionaltasunez jokatu dute, tratu ona edo oso ona eman digute, ekipajea sartzen eta ateratzen lagundu digute, eta zuhurtziaz gidatu dute. Gidatzeko erari erreparatuta, aldiz, duela lau urte baino ardura gutxiagorekin ibili dira (mantsoago, hori bai): zenbait taxik modu arriskutsuan aurreratu dituzte beste ibilgailuak, beste ba-tzuek gehiegizko abiadura eraman dute, semaforoaren argia gorri egonda ere, aurrera jarraitu dute behin baino gehiagotan eta zirkulazio seinaleei jaramon gutxi egin diete beste zenbaitek (orohar halako 26 kasu egon dira).

INFORMAZIOAREN ATALA HOBETU BEHARRA DAUKATE

Emaitzarik kaskarra informazioaren atalean lortu dute taxi zerbitzuek ('onargaria' baino ez), eta hortxe sumatu dugu hobekuntza gutxien 2005. urteko azterketatik hona. 180 ibilbideak egiteko hartu ditugun ibilgailuen % 39tan, tarifarik ez da egon agerian jarrita, nahiz eta legeak horretara behartzen dituen (2005. urtean, ibilgailuen % 55etan falta ziren tarifak, eta, beraz, zertxobait hobetu da lau urtetan). Taxilariaren lizentzia, berriz, 2005. urtean bezala, hirutik batean falta izan da (ibilgailuaren kanpoaldean eraman behar izaten dute), eta taxien erdiek baino gehiagok ez dute jakinarazi gehienez zenbat lagun joan daitezkeen taxian (2005ean % 48tan falta zen informazio hori). Baina ez dira hor bukatzeko gabeziak: taxien % 42k ez daukate uhala jarri behar dela ohartarazteko kartelik ("jarri uhala" edo antzekorik). Taxi gehienek jarrita eduki dute TAXI eta SP (Zerbitzu Publikoa) kartela, eta sabai gaineko adierazlea ere bai (libre edo beteta dagoen jakiteko). Ibilgailuen % 70ek bistan izan dute Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren itsastekoa, eta gainerako autoak berriak izan dira. Beti eman digute ordainagiria baina, gehienetan, guk eskatuta. Ordainagiri guztietan prezioa agertu izan da, baina % 13k soilik adierazi dute nondik abiatu diren eta % 11k soilik non bukatu den bidaia, eta legez, derrigorrezkoa da informazio hori ematea.

TAXI EROSO ETA ONGI HORNITUAK

Ibilgailuen % 95ek egoera ona edo oso ona eduki dute (2005ean, % 82k), eta taximetroak ere ongi egon dira, manipulazio zantzurik gabe. Hamar ibilgailutatik zortzik leiho elektrikoak eduki dituzte, guztiek eduki dute aire girogailua edo klimatizagailua, eta hamarretik ia seik GPSa. Txarteletan ordaintzeko sistema elektronikoa, aldiz, gutxi batzuek baino ez daukate oraindik. Lau taxitatik hirutan, eskura ordaindu behar izan dugu, eta taxien % 56k ez dute eduki ordainagiriak inprimatzeko gailurik ere. Ia guztiek eduki dituzte argi elektrikoak barrualdean, baina % 90ek ez dute agerian eraman su-itzalgailua. //



A CORUÑA

Tarifak: 2009ko igoyerik handiena (% 8,8). Kilometroa 0,88 euroordaintzen da baina gutxieneko bidaia garestienetakoa da.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Taxi guztietan aurkitu dugu 'jarri uhala' dioen kartela.
- Zenbait taxi geltoki hutsik aurkitu ditugu, taxirik gabe. Eta ibilgailuetan ez dugu ikusi zenbat bidaia sartzen diren esaten duen kartelik.



ALACANT

Tarifak: Kilometro bakoitza hiri honetan irtetan da garestien (0,95 euro). Gutxieneko ibilaldia 3,55 euro kostatzen da.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Telefonoz eskatutako taxiak bost minutu baino gutxiagotan iritsi ziren lekura.
- Zenbait taxi geltoki hutsik aurkitu ditugu, taxirik gabe. Bi ibilbidetan alde handia izan da joaneko bidaiaren eta itzulikoaren artean (batean % 30 garestiagoko izan da itzulikoa, eta bestean, % 41 garestiagoko).



GRANADA

Tarifak: Kilometroa ez da garesti ordaintzen baina gutxieneko ibilaldiaren prezioa altuenetakoa du (3,64 euro egunean zehar).

Proba praktikoa ('ona'):

- + Ondo informazio atalean, taxi gehienetan ikusi ditugu prezioak agerian.
- Taxietako batek ez du eduki taximetrorik. Zortzi ibilbidetan, taxilariak ez die jaramonik egin zirkulazio seinaleei.



IRUÑEA

Tarifak: Prezio igoyerik txikienetakoa Iruñean izan da, eta gaueko tarifa ez da hasten 23:00ak arte. Egindako kilometroa ere merkeenetakoa da.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Autoen garbi eta erosoak, horietako asko GPS eta guzti.
- Hamar ibilbideetan eman dizkiguten ordainagiritan ez da agertu bidaia non hasi den eta non bukatu den.



OVIEDO

Tarifak: Prezioak % 7,7 igo dira, eta A Coruñaren ondotik, hemen garestitu dira gehien, orohar erdi-mailakoak badira ere Aireportura joatea aski garestia da (55 euro, batez beste).

Proba praktikoa ('ona'):

- + Taxi guztietan ikusi ditugu 'jarri uhala' dioen kartelak
- Ibilgailuetako batek ez du eduki taximetrorik.



SANTANDER

Tarifak: Egindako kilometroa 0,82 kobratzen dute, erdi-mailako prezioa. Egunean zehar, Santanderrek du abiasaririk merkeenetakoa (1,22 euro balio du).

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Garbitasunean eta erosotasunean emaitza 'ona' lortu du.
- Guri egokitu zaizkigun taxi guztiek falta izan dute lizentzia eta matrikula dituen kartela agerian. Gainera, sei taxi geltokietan autorik ez da egon zenbaitetan.



BARTZELONA

Tarifak: Ez dago gutxieneko ibilaldirik baina 2 euro kobratzen da abiasaria. Egindako kilometroa egunez eta lane-gunez 0,86 kobratzen dute eta gaueko prezioak hamaitzetatik aurrera kobratzen dira.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Taxi guztietan ikusi genituen 'jarri uhala' dioten kartelak.
- Ibilbideetako batean, % 30eko alde izan da joaneko bidaiaren eta itzulikoaren artean.



BILBO

Tarifak: Gainerako hirietan baino merkeagoa da kilometroaren prezioa (0,65 euro egunez eta 0,89 gauez); abiasaririk ez dago baina gutxieneko ibilaldia garestienetakoa da.

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Taxi guztiek GPSa eduki dute.
- Informazioaren atalean ez dute gaudituz azterketa. Ez da informaziorik ematen, esaterako, gehieneko bidaiari kopuruari buruz.



DONOSTIA

Tarifak: Donostian kobratzen dute garestien gutxieneko ibilaldia (4,65 euro). Ez dago abiasaririk baina gutxieneko ibilaldia denetan garestiena da (4,65 euro)

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Taxien egoera, oro har, 'ona' edo 'oso ona' izan da, eta berdin garbitasuna eta erosotasuna ere.
- Ibilbideetako batean, taxilaria alferreko itzulunguruak eginez ibili da.



GASTEIZ

Tarifak: Abiasaririk garestiena Gasteiz du (3,64 euro kobratzen dute). Gutxieneko ibilaldirik ez da ordaindu behar. Egindako kilometroaren prezioa azterketaren batez-bestekoan dago.

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + 16 taxi ditu ezinduentzat egokituta.
- Ibilbideetako batean, taxilaria alferreko itzulunguruak eginez ibili da.



LOGROÑO

Tarifak: Abiasaria, gutxieneko ibilaldia eta egindako kilometro merkeenetakoa dira.

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Ibilgailuen egoera 'oso ona' iruditu zaigu.
- Telefonoz eskaturiko taxiak bost minutu baino lehenago heldu ziren. Bi ibilbidetan taximetroa ez zegoen piztuta. Bederatzi autotan ez zeuden prezioak agerian eta batek ere ez zeukan ordainagaria emateko inpresorarik.



MADRIL

Tarifak: Egindako kilometroa, denetan garestiena. Larunbat eta jaiegunetan, 3,10 euro kobratzen dute abiasaria. Aireportura joategatik 5,5 euroko kobratzen dute (inon baino gehiago, Malagarekin batera).

Proba praktikoa ('ona'):

- + Ibilgailu guztiek eduki dute GPSa eta prezioak agerian.
- Sei taxik ez zuten ordainagaria egiteko inpresorarik.



MALAGA

Tarifak: Prezioak erdi-mailakoak dira baina 2 euro kobratzen dira egunero gauean ibiltzeagatik eta aireportura joategatik 5,5 euroko kobratzen dute (inon baino gehiago, Madrilekin batera).

Proba praktikoa ('ona'):

- + 2009. urtean 69 auto izango ditu ezinduentzat.
- Ibilbide bat bera ere ezin izan dugu txartelarekin ordaindu.



MURTZIA

Tarifak: Erdi-mailako prezioak egindako kilometroa eta gutxieneko ibilaldiagatik. Preziorik ez da igo 2009. urtean.

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Geltokiak erraz aurkitu ditugu eta taxiz beteta.
- Hiru taxik ez dute eduki larrialdi argirik barrualdean. Taxia hartzeko egin dugun deietako batean, laugarrenean erantzun digute.



SEVILLA

Tarifak: Sevillak du abiasaririk merkeena guztietan (1,19 euro kobratzen dute). Egindako kilometroaren prezioa erdi-mailakoa da. Gaueko tarifa goiz samar hasten da, 21:00etan.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Zerbitzuaren kalitatea 'oso ona' iruditu zaigu.
- Taxietako bik ez dute eduki taximetrorik piztuta. Lautan, ez zeuden prezioak agerian.



VALENTZIA

Tarifak: Egunez egindako kilometroa garestienetakoa da. Eta gaueko gutxieneko ibilaldia denetan garestiena (6 euro kobratzen dira).

Proba praktikoa ('ona'):

- + Hiri guztien batez-bestekoan baino GPS eta su-itzalgailu behiago aurkitu ditugu taxietan.
- Nora joan nahi dugun adierazi aurretik abiarazi dute taximetroa taxilarien erdiek.



VALLADOLID

Tarifak: Gaueko ordutegia ez da hasten 23:00ak arte, eta gutxieneko ibilaldirik merkeenetakoa dauka, bai egunez eta bai gauez. Egindako kilometroa, oostera, garestienetakoa da.

Proba praktikoa ('onargaria'):

- + Ibilgailu guztietan prezioak agerian jarrita zeuden.
- Ibilbidetako baten, semaforoaren argia gorri egonda ere, gidariak aurrera jarraitu zuen.



ZARAGOZA

Tarifak: Taxiak zain ematen duen ordu bakoitza gauean denetan garestiena da eta egunez ere, garestienetakoa. Egindako kilometro merkeen artean dago eta abiasaria erdi-mailakoa da.

Proba praktikoa ('ona'):

- + Taxietan gehieneko bidaiari kopurua agertzen zen.
- Nora joan nahi dugun adierazi aurretik abiarazi dute taximetroa taxilari guztiek.